

ALEN-MENDIA

Lenago be esanak gara, sarri-askotan eskualdeko mendirik goitienak, mendi-zale geiagok ikustatuak izaten dira, erdi-goitia eta mendi txikiago-ak baiño, esatebaterako gure Euzkadi onetan Gorbeya, Aizkorri eta Aralar baiño, euren edertasunak eta entzuteak bultzatuta.

Gaur aipatzen dogun Alen au, ez da aundienatarikoa, baiña, ez txikerrenetarikoa be, beren 798 neurkin goraka dituan ezketiño. Geien bat, baiña gure idazlan-txu onetan aipatzen ba'dogu, euzkotarrok sarri-askotan pizkat aaztuta eukiten dogun Enkarterria, burdin-meatz eskualdean tinkatuta aurkitzen dan esketiño, ezaugarria iruditzen jakulako. Supuerta'ko lurraldean aukitzen da, Arzentaes, Iturriotz (Trucios) eta pizkat urrunago Muzkiz'erdian.

* * *

Sopuerta orretatik igaroten zan, orain ogei bat urtera arte, Arzentaes'tik C. Urdialez'erako bultzia, geien baten inguru ortako burdin-meatzkiak eroaten ebazana. Burdin-bidea, geien bat menditarte eta lurpeko zuloetatik joaten zan.

Lenago esan dogunez, ez da oso mendi goitia, baiña, ikuskizun bikaiñik asko ditu beren gaillur luzenge baiña zorrotzetik, bai itsaso-aldera eta bai Enkarterri'rik geienerantza.


* * *

Alen mendi orretara zuzendu nai dabenak eta, Bilboaldetik urtetan ba'dau berebillez, egokiena da Sopuerta'rañotu eta bertatik jarrai olabarrieta auzunera (Lenago Las Barrietas ipinten eban bertan eta, orain ikusi dogu nonbaiten Olabarrieta eta, gure ustez ori da beren jatorrizko izena) eta bertatik jarraituaz bitxabalari, igon Alen auzune bakanera eta, bertan burdia laga ondoren, artu geure gaiñ ikusiko dogun mendi erpin orretarantzko bidea, baiña, zearka ezkererantza egiñaz, zuzen igoteko oso erpiña dalako, igongo dogu mendi-lepora. Mendi-lepo orretan barriz eskomara, Ipar-alderatza ganik-gan igongo dogu, baiña, gailurrera eldu baiño len etxe edo gaztelu-zarren baten aztarrenak aurkituko doguz eta, goian, gailurrean, mendi-kutxa eta gesiko maia.

* * *

Alen'go auzunean eta bai Enkarterri'rik geienaen be Kastro-Alen deitzen dautsoe mendi oneri eta, beraz, ziurki goian ikusiten doguzan etxe-aztarrenak, antziña bertan izandako guda-gaztelu zarraren aztarrenak balizake izatea.

Ezagutu irakurle, geure lurraldea.



IRU LARROSA

Kristaleko ur-ontzian, iru larrosa abar orlegi artian, arpegi argiak.

Bi, zuri oriak;
larrosa kolorezko, orra bestia.

¿Nundik jatorkitzue margo eder orrek?
Baratzeko basterran, lurra da baltza...
¿Eta usain ori? ¡Zuben sustrai ganian zenduen zatza!

Kimikalari trebe, ikusi-eziña eguan baratz atan ¡Orotar Jauna!
Berbera ementxe dago geure inguruan,
geure barruan, baita.

¡Abestu alkarren, abestu bere aintza!

UTARSUS

